


Kostaldearen dantzan

Maialen Mintegi °



1. Urtzen, Pikuondoko lurmuturra, Hondarribia, xirrimirri, I lak

Pikuondoko lurmuturra da inguruko tokirik aproposena 50 isobataren erliebe-marrara hurbiltzeko. Marra hori



biologoen mapetan agertzen da fotosintesiaren muga bezala, eta kostaldea hor bukatzen dute. Zenbat eta ur-sakonera handiagoa izan, itsas belarrek argi gutxiago eskuratzen dute hazteko. Bertan marra hori ikusezina da. Horizontea ere gaur alde egin du. Mugarik gabeko paisaia besterik ez da. Nork ez du inoiz burua behera bota urezko zerua ikusteko? Paper lodia, tinta eta pintzela ekarri ditut... baina marrazkia laino bihurtzen da. Arrantzaleak itsasertaren seinaleen asmatzaileak dira, nahi ala beharrez. “Olatuen zentzuak kostalderantz joateko bidea ematen du, lurrera hurbildu eta ubainak abulagoak dira” dio Xabierrek. Itsas ainarek elikatzeko, arrantzaleak segitu ordez nahiago dute zabortegira joan. Kontsumo-gizarte honetan nahi bezainbat gizentzen dira.

2. Zarta eta fereka, Urruñako erlaitza, euri-zaparradak, I2ak

Itsas haizeak eta uhin bortitzak, gatzak, hezetasanak... lurra azalera arte karraskatzen du.

Biluzirik, tramankuluaren mekanismoa agerian dugu: tolestura geologikoak zerurantz begira dira. Milaka urtetan, higadura eta grabitatearen lanak dena berriz etzaten du.



Energiaz betetako paisaia da. Horregatik, Euskal Autonomia Erkidegoak, ur-zutabe oszilatuaren teknologiaren bitartez energia sortzeko asmoa du, Kantauri itsasbaterreko 5 tokitan. Energia berriztagarri ekoizpen mota hori oraindik entsegetan da Mutrikun. Lur eta landareen erresistentziagunea dugu hemen. Konkurrentzia ezak, hazi bakar batzuei ematen die izurretan gartzeko baimena. Batzuek jasanezina besteen aukera sortzen du. Haizeak sortutako landare forma desorekatuari “anemomorfosia” deritzogu. Euskal Herriko bonsai-ak dira. Ekosistema hauskorak babestu eta pribatizazioa murriztu nahian, itsasbaterreko legeak Lapurdin uretatik 500 metrotara hiritartzea debekatzen du.

3. Saltoka-saltoka..., Donibane Lohizune, oskarbi, 3ak

Flipper joko batean bezala, urak bere bidea egiten du oztopo batetik bestera. Noiztenka, dikeari materia eransten dio; bestetan, aldiz, dikearen oinetan, dakarren hondarra uzten du. Korrontearen arabera higadura edo hondartza sortzen da. Ezker, eskuin, ezker... etxebizitzak lerrotatzen dira partida ahalik eta hurbilenetik ikusteko. Tokiak garesti ordaintzen dira 600 euro (shon) metro karratuka.



Hondartza urre distiratsuz jantzi da: garbi-garbi. Badirudi egunero erratza pasatzen dutela eta baratzezain batek arrasteluarekin malda lautzen duela. Polder gainean, ertzean, bada bide luze bat. Oinezkoen dike horrek bereizten du hondartza eta hiria, xake joko batean bezala. Itsasaldiek ez dute hiria hunkitzen. Gotorleku ordenatua da: itsas belarrik ez, hondarkirik ez, lohirik ez, ... Donibane Lohizunen. Gaur egun, bada kontrako joera bat. Portuetan aurkitzen ziren industriak desagertzen joan dira eta beraiekin batera azpiegiturak ere bai. Marearen erritmoak berreskuratu nahian, aniztasun ekologikoa birsortzen dugu itsasadarretako parke naturaletan. Orduan lohitzuneek lurra kutsadura kentzen laguntzen dute.

Kostaz bitz egitean, paisaiaren irudiak berehala heldu zaizkigu gogora (hondartza, portua, hiritartzea...).

Paisaiaren irakurpenak irudi estatikoa bainoago beste hainbat bide ditu. Paisaia etengabe eraldatzen den entitatea bada, beretziki itsasaldean, nola sar gaitzeko haren dantzian, hau da, haren izaeran?


Australian aborigenek beren lurraldea kantuen bidez marrazten dute. Melodia bakoitzari dagokio bidearen eta erliebearen adierazpen bat. "Line songs"en gisa kostako paisaia eraikitzen joan gara ibilaldiaren bidez, hau da, denboraren bidez.

Hainbat giro zeharkatu ditugu. Eguraldiaren ezegonkortasunaren eremua da Kantauriko kostaldea. Hau ez da karta postaletan agertzen.

Maialen Mintegi paisaialaria da.

4. Lerratzea, Erromatar zubia, lainotsu, 3 eta erdiak


Ur gaziaren igoeraren mugan eraiki zuten erromatarrek zubia, uholde azkarrenetatik babesteko, itsasertzetik sei kilometrotara. Jendeak uholdeekin egiten ikasi du. Uholde azkarrenetan, kabalak hondartzan aurkitu dira. "Behiek igeri ongi dakite, ardiek ez", dio nire amatxik. Isaka edo lubakiek, hemen, beso osoko sakontasuna dute. Uholde azkarrenetan, urez gainezka dira.



Ur geza lurretan sakabanatzen da, eta menditik eramandako alubioi-jalkinek lurra aberasten dute. Beherago, isaken sarreran, itzulera aurkako ateka batek eragozten du koefiziente handiko itsas gorako ur gaziaren sartzea. Errotak ere badira. Sistema hidrauliko honen mantentzea beharrezkoa da laborantza-lurren emankortasuna salbatzeko. Isaka gaur erreka bihurtzen ari da. Itsasaldien koefizienteak azkarrak dira. Hiru egunez elurra erori da mendian. Urtuta irrista batez lautadara jaisten da, hiritartze berriaren lurrek ez baitute ura atxikitzen. Erromatar zubia irauli zen. Geroztik, errekaen bi aldeetan ormak eraiki dira. Lautadak salatzen du urak behar lukeen tokia.

5. Igan, Sokorriko kapera, 4ak

Gorantz, ur-turrusta segituz, herriak biribiltzen dira. Horietatik hurbil, oinez, beti bada muinoren bat itsasoari eta mendiari begira. San Markos, Sokorri... kaperen ormetan arrantzale eta baserritarren otoitzen marmarrak entzuten dira. Elkarbizitza eta oroimen kolektiboaren egoitzak dira. Altuera honetan burdinbide eta kamioi-bideen antzamanza azkarra da.



Belardi heze lasaiak eraldaketa-zurrunbilo batean sartu dira. Azpiegitura-proiektu berriak biderkatu dira (AHT, autobidea handitzea...), manifestaldiak ere. Mugaz gaindiko beste jario logikak dira. Ingu-ruetako baserrietako pentzeak terreno eraikigarri bihurtzen dira eta haltzadi eta sahasa sasien orde, thuya hesi erraldoiak landatzen dira. Bakoitza bere xokoa.

6. Egan, Aiako Harria, 6ak

Aiako Harria Euskal Herriko mendietarik zaharrenetakoa da. Besteek ez bezala, granitozko lurzorua du. Panel batek dioenez mendizaleon pausok dute mendia lautzen. "Xendetatik ez atera!": higaduraren beldurra...



Tontorrerako bidea, pauso makal batez egiten da. Oinen puntari norabidea eman, zolaren gogortasuna zehaztu, norberaren pisua hanka bakoitzean banatu. Harriak lohian lagun, maldan behera etsai. Lurraren eta hatsaren arteko dantza da. Tontorrean, haize-boladek belarra makurtzen dute eta zerua garbitzen. Urrunera begiratuta, itsasoa mendiaren gainean azaltzen da. Badirudi kostaldea irakurgarri bihurtzen dela: industrialdeen kutzak perspektibetan, hirien makurtzea ibaien bide organikoaren ertzean, bideak eta elizdorreak. Puzzle batean bezala kostako elementu "objektiboak" elkarren barnean sartzen dira.